

MU-ko Enpresagintza Fakultateak 500 pertsonatik gora batzen ditu Kursaal-ean bere 50 urteurrena ospatzeko

2010/11/17

Fakultateak aurten 50 urte betetzen ditu, hau aktibitate desberdinekin ospatu da eta ostegun honetan izango da ekitaldi nagusia, bertan ikasle eta irakasle izandakoak, gaur egungo ikasle eta irakasleak, enpresak eta unibertsitatearekin erlazioan dauden instituzioak bertaratuko direlarik.

Ekitaldian Fakultateko historia gogoratuko da eta baita etorkizuneko erronkak ere, beti ere fakultatearekin erlazioa izan duten enpresa eta pertsonen bitartez eta gaur egun dutenekin ere.

Ekitaldian Isabel Celaá, Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua, Eneko Goia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bozeramailea eta Bide-azpiegituretako Foru Diputatua, Lourdes Idoiaga, Oñatiko Alkatea, Jose Mari Aldekoa, Mondragon Korporazioko Presidente, Iosu Zabala, Mondragon Unibertsitateko Errektorea eta Lander Beloki, Enpresagintza Fakultateko Dekanoak parte hartuko dute.

Hurbiltzen diren pertsona guztiak Jose Antonio Azpiazuk idatzi duen "Historiatik etorkizunera begira" liburua jasoko dute, bertan fakultatearen historia eta etorkizunari buruz hitzegiten delarik.

